

**UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREEN
ESPEZIALIZAZIORAKO KONTRATAZIOA EGITEKO
DEIALDIA (2016):**

Uko egite baten ondoren, kontratu berria ematen da

Hamar (10) eguneko epea dute UPV/EHUko ikertzaile doktoeren espezializaziorako kontratazioa egiteko deialdiko kontratuen onuradunek behin betiko emandako kontratua onartu edo hari uko egiten zioten erakusteko. Uko egite bakarra jaso da, beraz, behin betiko erabakian argitaratutako hurrenkerari jarraituta, kontratu berri hau ematen da:

Uko egitea:

KODEA	NAN	PUNTUAK GUZTIRA
ESPD0C16/74	X89115991	92,5

Ematen den kontratu berria:

KODEA	NAN	PUNTUAK GUZTIRA
ESPD0C16/114	78932833F	88

Kontrataziorako aurkeztu beharreko dokumentuak:

2017ko maiatzaren 1ean hasiko da lanean. Laguntza onartu duten onuradun guztiek **2017ko maiatzaren 22a baino lehen** bidali beharko dituzte, e-mail bidez, dokumentu hauek PDF formatuan, helbide honetara: rrhh-inves.dgi@ehu.eus :

- a. Betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Datu pertsonalen fitxa.
- c. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- d. Doktore tituluaren fotokopia edo tituluari dagokin homologazio agiria.
- e. Lanean hasteko agiria (2017ko maiatzaren 1etik).
- f. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimen administratiboa aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan).

Gero, **2017ko maiatzaren 27a baino lehen**, dokumentazio hori aurkeztu beharko dute UPV/EHUko Erregistro Orokorrean.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitza).

Leioan, 2017ko apirilaren 11n.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA